Marriage bi lagunen elkartzea da, artisten elkarlana, interbentzioa, manifestu intimoa eta, besteak beste, trabesti ikuskaria. Ezkontza esaten diogun arren, ez dago inolako kontratu idatzirik, eta ez du garrantzi berezirik estatu modernoaren instituzioarentzat (zenbait gay politika gogora ekartzen badu ere). Lehen planoan jartzen ditugu elkarlanaren eta subjektibotasunaren auziak maila oso mugatu batean: bi pertsonaren potentziala. Marriage jarraia duen proiektu bat da, barne hartzen dituena gure bizitzak, gorputzak, komunitateak eta elkarrekin eta ikusleekin komunikatzeko gaitasuna. Bi queer gorputz diren aldetik, Marriage aldi berean bilakatzen da itxura aldatzearen eta eraldatzearen gaineko ikerketa bat, nola alor digitalean hala errealean. Formari dagokionez, lan honek islatzen ditu performance, bideo eta musikan lan egitearen eta elkarrekin bizitzearen historia partekatua. Gaur egun Math Bass San Frantziskon bizi da, eta Wu Tsang Los Angelesen. Ekarlanean daramate 2002az geroztik.